

ISABEL ETA TERESITA

Isabel Catez Rolland (1880-1906) eta Teresa Martin Guerin (1873-1897) frantziarrak ditugu. Garaikideak, Isabel zazpi urte gazteagoa. Biok emakume eta sensibilitate fiñekoak. Biok lekaime karmeldarrak eta santak. Gazterik ilgo dira. Isabel 26 urtekin eta Teresita 24 urte besterik ez dituala. Eta biok idazleak. Euron izkribuak best-seller biurtu dira kristau espiritualitate maillan.

Teresitaren idazlan guztiak euskeraz be argitaratuta daukaguz. Isabelenak, ostera, batzuk baiño ez. Eta eurok, Karmel al-dizkari onetan, 255. zenbakian. Ori bai, euskera ederrean itzulita. Orra or, “Azken gogo-jardunak”, “Utz ezazu maitatzen”, “Galdera-sorta” eta “Oi, ene Jainko, ahuspez gurtzen zaitudan Hirutasuna”. Otoitz famatu onen itzulpena Lino Akesolorena dogu, eta beste irurak Luis Baraiazarrak itzuli izan ditu. Onek itzuli ditu ondorengo olerkiak be: “Bada bat Misterio guztia dakiena”, “Hirutasun Santuarengan aurkituko gara”, “Aztertu duzu inoiz Maitasunaren hondo sakona?”, “Karmeldarra”.

Isabelen eriotzaren mendeurrena, aurtengo ekainaren 3an amaitu danez, nire asmoa Isabelek Teresitagandik artutako eragina aipatzea baiño ez da. Eta ez sakonean, arin baiño. Baditugu orretaz ainbat lan eder. Besteak beste, teologia aldetik Hans Urs von Balthasarrena, eta historia aldetik, Conrad de Meeste-

rrena. Bion izenak merezi dabe aipatzea. Biok, lan bikaiñak eskeini deuskuez. Urs von Balthasar jakintsuaren “Die Schwestern im Geist” liburuak itzelezko sona eta fama lortu ditu teologia mailan. Conrad de Meesterrek, ostera, makina bat lan egin dau Teresitaren eta Isabelen izkribuen “edizio kritikoa” argitaratzen. Biok merezi dabe gure esker ona.

Isabelen eta Teresitaren topaketa

Isabelen bizitzan eragin andia izan dabe mistikoak, batez be, San Paulok eta San Joan Ebanjelariak. Maite ditu, Teresa Avilakoa eta Joan Kurutzekoa, Katalina Sienakoa eta Angela Foligno. Baita Ruysbroeck flandestarra be. Eta zer esanik ez, Teresa Lisieuxkoa.

Altaretara jasotako santu eta doatsuen artean ainbat ditugu Teresitaren eragiña euren bizitzan sentidu izan dabenak. Euron artean, baleiteke Teresitaren idazlanak lenengo irakurri zituana, Isabel Catez bera izatea. Arritzekoa da, Teresita il eta andik urtebete eta erdira asi zan Isabel irakurtzen Teresitaren idazlanak.

Teresita il eta urtebetera justu, 1898. urtean, irailaren 30ean, argitaratuko dira bere idazlanak. Bi milla ale. Eta berealaxe agortzen da. Boom bat biurtuko da Frantzian eta Frantziatik kanpo. Andik urte betera bigarren edizioak urtengo dau kalera. Eta gero gerokoak. Isabelek leenengo edizioa izango dau bere eskuetan. Edizio onetan ez dira agertzen Teresitaren lan guztiak. Bakarrik oneek: Arima baten istoria, olerki mordoxka bat, amazapi karta , pare bat deboziazko antzerki eta pare bat otoitz. Baita banaka batzuk azken egunetako alkarrizketa batzuk be. Batez be eriotza egunekoak.

Gustuko ditu Isabelek Teresitaren izkribuak. Ainbat bider irakurri eta erabiliko ditu. Emeretzi urte besterik ez ditu Isabelek eta irentsi egiten ditu Teresitaren idazlanak. Egundoko zirrara egingo deutso Teresitaren pentsamentuak eta irrikak. Maiteminduta geratuko da haren mezu izugarriaz. An eta emen

kopiatzen ditu Teresitaren gauza ederrenak. Eta bere idatzietan be nonai somatzen da Teresitaren eragin pozzarria.

Baiña estimagarrienak izkribu bi oneek ditu. Bata, Teresitaren “Neure buruaren eskaintza erreoparizat Jainko Onaren Maitasun Errukitsuari” egindako otoitza. Buruz ikasi eta egunero *erresauko* dau otoitz eder ori. Baditugu, gitxienez, Isabelek egindako zazpi kopia. Iru kopia karmeldar lekaima sartu orduko egindakoak. Isabelek bere otoitz entzutetsuena “Oi, ene Jainko, ahuspez gurtzen zaitudan Hirutasuna” idazten dauanean, Teresitaren otoitz onetan inspiratuko da geienbat.

Baita begiko dau Teresitak bere aizta nagusiari egindako paregabeko gutuna be. Teresitaren izkribu guztietatik Isabelen biotza geien markatuko dauana orixe izango da. Benetan bikaina da izan be. Mistikaren goia ortxe bai joten dauala. Orduko edizioetan amaikagarren kapitulua osotzen eban. Gaurko edizioetan, ostera, “B Eskuizkribua” biurtuko da. Testu onek txundituta eta biotza be erdibituta lagako deutso Isabeli.

Teresitaren maisutasuna

Goitik bera personalizatuko dau Isabelek Lisieuxko gaztearen mezua. Bere kide biurtuko da. Biotz-biotzez maite dau. Geiago oraindino, bere santu kutunetarikoen tartean onartuko dau Teresita. Arritzekoa da Isabelen biozkada. Teresita il barria danez, iñondik iñora be ez da oraindiño altaretara jaso. Santu egiteko prozesu susmorik ez da entzun ere egin. Isabelentzat ez dago dudarik. Berarentzat Teresita egundoko santa bat da. Orra bere intuizio argia. Berarentzat eta haren lagunentzat ere eredugarri jarten dau Lisieuxko aingeru gaztea. Aipatzekotan iru kasu jarriko neukez. Baditu beste ainbat be. Baina naiko ditugu iru adibide oneek.

Bata, bere adiskide kutun bateri idatzitako kartan aurkitzen dogu. Bere izena Germana Gemeaux. Bera baiño gazteagoa dan neskatxari diñotso: “ (...) Santu guztien ardurapean izten zaitut, oso bereziki gure Ama Teresa eta Ume Jesusen Teresa-

ren ardurapean. Bai, ene Germana maitea, izan gaitazan Ume Jesusen Teresa lako xumeak, beste munduko gauza arrigarriak billatu barik, aldi oro beti Jaungoikoaren borondatea egiñez. Egin daiguzan gauza txikienak be Jaungoikoaren besoetan geure nortasun guztia lagata, umetxo batek bere amaren besoetan bezela. Bai, nire kutun txikerra, oso makalak gara, leialtasun ezaz beteta, miseria utsa besterik ez garala, esango neuke nik, baiña Berak ondo daki ori, parkatzeraiño maite gaitu, jausten garanean berealaxe jaso eta Beraren besoetan garoaz bere santutasunean parte artzeko. Neuk ere, ene Germana maitea, Jaungoikoaren poza izateko, santa nai dot izan. Erregutu eiozu maitasun utsez beterik bizi naitela, orixe da nire bokazinoa eta. Gero, eguneroko une guztietan jardun daigula biok etengabeko komuninoan alkartuta: itzartu gaitazan goizean Maitasunean, igaro daigun egun osoan zear Maitasunari entregauta, Jaungoikoaren begiradapean, Beragaz, Berarengan eta Beragaitik bakarrik dan-dana egiñez. Eta gaba datorrenean, gure arteko maitasun alkarrizketa amaitu ez danez, Maitasunean lokartu gaitazan. Naizta geure burua akatsez beterik ikusi, sartu gaitazan kiskaltzen dauan Maitasunaren sugarretan, igaro daigun Maitasunean geure Purgatorioa”. Testu eder onetan, labur bilduta ikusten da zelakoa dan Isabelengan Lisieuzko gaztearen eragina.

Beste datu onetan be, garbi ikusten da Isabellek Teresitarengan daukon estimua “Maitatu” deritxon olerkian, maitasun bizitzan oorezko matrikula lortu daben pertsona batzuk goratzen ditu. Leenengo bi estrofetan, zer esanik ez, Jesus Nazaretetakoaren maitasuna abesten dau. Eta ondorengo estrofan, Lisieuzko Aingeruaren maitasuna. Eta jarraian, beste santu oneek agertzen dira: Maria Magdalena, Teresa Avilakoa, Andra Maria, Compiegneko amasei lekaime martiriak eta Frantziako leenengo lekaime karmeldarrak. Bakotxari estrofa eder bana eskeiniz. Zerrenda onetan erakargarria da, maitasun bizitzan gallurrera eldu diranen artean, beste santu guztiak baino leenago, Jesusen ondoren, Teresita agertzea. Orrela, zeozer baino geiago esan gura dau Isabellek.

Amaitzeko, beste onek be merezi dau gogoratzea. Isabelek ez ditu bakarrik Teresitaren irakatsiak biotzez onartzen, baita esker kantuka ari otoitz egin be. Ori bai dala garrantzitsua. Gauza bat da pertsona baten mezua estimatzea. Eta beste bat, pertsona orri otoitza zuzentzea, esker kantuka jardutea. Isabelek egunero Teresitaren omenez abestuko dau Andra Mariaren “Magnificat” esker kantua. Premina gorrian, Teresitarengana pertsonalki joten dau. Esaterako, geixotuta eta ibili ezinik dagoanean, Teresitari eskatuko deutso ibiltea koruko tribunara joateko bertatik Sagrarioan dagoan Gure Jauna bisitatzeke. Eta Teresitaren bitartez ibiltea lortuko dau Isabelek.

Ez da aaztu bear, Dijongo lekaime karmeldarren artean, maite-maitea zala Teresita. Artu-emon andia sortuko da euron eta Lisieuxko komentuko mojen artean, bertan bizi eta il barria dan Teresita dala-ta. Orretan be, Dijongo priore eta nobizien maistrea dan Germana Jesusenari ainbat zor deutso Isabelek.

A. Olea